

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

43/2019 Mozioa, azaroaren 20koa, glifosatoaren erabilera debekatzeari eta Euskadiko biodibertsitatea defendatzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko azaroaren 20an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

43/2019 Mozioa, azaroaren 20koa, glifosatoaren erabilera debekatzeari eta Euskadiko biodibertsitatea defendatzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek babestu egiten dute Europar Batasunak hartu duen erabakia glifosatoaren erabilera-baimena murrizteko eta 2022an behin betiko debekatzeko, gizakiaren osasunaren eta ekosistemen degradazioaren gaineko zuhurtasun-printzipioari jarraituz.

2. Arabako Batzar Nagusiek Europar Batasunari eskatzen diote pestiziden erabilera murrizteko izaera lotesleko helburuak ezar ditzala EB osoan, pestizidarik gabeko etorkizuna izateko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako udalei, kuadrillei eta kontzejuei eskatzen diete glifosatoaren herbizidak erabiltzea saihesteko; horretarako, Arabako Foru Aldundiak sentsibilizazio-kanpaina bat egingo du, eremu publikoan zein pribatuan eta osasunarentzat eta ingurumenarentzat horien erabilerak sortzen dituen kalteen, arriskuen eta ziurgabetasunen inguruan.

4. Arabako Batzar Nagusiek Foru Gobernuari eskatzen diote Arabako lehen sektoreak laguntza teknikoa eta prestakuntza ematea bultza dezala, nekazaritza ekologikoko ikuspegiko bidezko trantsizioak egin daitezzen, eta ondorioz, herbizidak pixkanaka-pixkanaka gutxitu daitezzen, behin betiko kendu arte.

5. Arabako Batzar Nagusiek Foru Gobernuari eskatzen diote aurreko neurri guztiak martxan jar ditzala, Arabako lurraldeak glifosatorik izan ez dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 20a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA